

## NITROGENOZKO ONGARRI UNITATEAK APLIKATZEKO MUGAK

Egilea: AFAko Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua

*Eskualdeko nekazaritza bulegoetan sarritan jasotzen dira kontsultak labore bakoitzari bai arrisku zonaren barruan bai handik kanpo bota dakioken gehienezko nitrogeno kopuruari buruz. Kontsulta horiei erantzuteko, ongarritze nitrogenatuko taula batzuk egin dira, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, kasu desberdinetarako.*

Taula horietan ez dago aldaketarik lehenetik dauden eta Eusko Jaurlaritzak argitaratu dituen taulekin aldaratuz. Erraztu baino ez dira egin, eta haien oinean ongarririk aplikatzeko kontuan hartu beharreko jarraibiderik garrantzitsuenak erantsi dira.

<b>ARRISKU ZONETAN GEHIENEZ ERE ERABIL DAITEZKEEN NITROGENO DOSIAK</b>	
<b>LABOREAK</b>	<b>NITROGENOZKO ONGARRI UNITATEETAN ADIERAZITAKO GEHIENEZKO DOSIA (HONDOAN+AZALEAN)</b>
<b>GARIA</b>	<b>170</b>
<b>NEGUKO GARAGARRA</b>	<b>150</b>
<b>UDABERRIKO GARAGARRA</b>	<b>115</b>
<b>OLOA</b>	<b>170</b>
<b>BAZKA ARTOA</b>	<b>170</b>
<b>ILARRA</b>	<b>40</b>
<b>BABAK, BABATXOAK, TXITXIRIOA, DILISTA</b>	<b>50</b>
<b>LEKA, BABARRUN ALEA</b>	<b>50</b>
<b>EKILOREA</b>	<b>40</b>
<b>KOLTZA</b>	<b>170</b>
<b>KONTSUMOKO PATATA</b>	<b>170</b>
<b>HAZITARAKO PATATA</b>	<b>160</b>
<b>ERREMOLATXA</b>	<b>170</b>
<b>LARRATZEKO BELARDIAK</b>	<b>70</b>
<b>LARRATZEKO BELARDIAK + BIRRITAN MOZTEA</b>	<b>170</b>
<b>MAHASTIA</b>	<b>50</b>
<b>ORTUARIAK</b>	<b>Ortuari mota zein den</b>
<b>FRUTA ARBOLAK ETA BASO SARTZEKOAK</b>	<b>Landatu beharrekoa zer den</b>
<b><u>OHAR GARRANTZITSUAK</u></b>	
<b>Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen du nitrogenozko zenbat ongarririk erabiltzen den arrisku zonetan.</b>	
1. Nahiz eta lurzati batzuen zati bat, txikia izanda ere, arrisku zonan badago, berdin bete beharko da taula horretan gehienezko dosiei buruz adierazitakoa.	
2. Berariaz ezarritako ibilguetan, debekatuta dago, urteko edozein sasoiotan, ongarririk eta fitosanitarioak botatzea hiru metroko zerrandan ibaiak neguan daukan uraren ibilguaren ertzarekiko. Halaber, hiru metroko zerranda hori ezingo da erein inola ere.	
3. Nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan dagoen zonetan (2008ko urriaren 15eko Agindua, 2008ko abenduaren 4ko EHAAren argitaratua, 233 zk., osteguna) ezarri beharreko ekintza planaren laburpena da taula hori. Hortaz, bete egin beharko da, agindu horretan zehaztutako gainerako mugak betetzeaz gain.	
4. Laboreari aplikagarri zaion nitrogeno guztia da dosia; beraz, ongarririk organikoak (simaurra eta minda) eta kimikoak (hondoko ongarririk + nitratoa) hartu behar dira kontuan.	
5. Baldin eta nekazaritza eta ingurumen laguntzak arautzen dituzten arauetan mugarik ezartzen bada gehienez erabili daitezkeen nitrogeno kopuruari buruz, arau horietan jarritako mugak ezarriko dira.	

**ARRISKURIK EZ DAGOEN ZONETAN GEHIENEZ ERE ERABIL DAITEZKEEN NITROGENO DOSIAK  
(NEKAZARITZAKO JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA)**

LABOREAK	NITROGENOZKO ONGARRI UNITATEETAN ADIERAZITAKO GEHIENEZKO DOSIA (HONDOAN+AZALEAN)
GARIA	210
NEGUKO GARAGARRA	210
UDABERRIKO GARAGARRA	170
OLOA	150
BAZKA ARTOA	250
ILARRA	50
BABAK, BABATXOAK	50
LEKAK	60
EKILOREA	100
KOLTZA	210
KONTSUMOKO PATATA	220
HAZITARAKO PATATA	200
ERREMOLATXA	220
BELARDIAK	300
MAHASTIA	50
ORTUARIAK	Uraza 100, piperra 300, tomatea 400, beste ortuari batzuk 100
BAZKA LABOREAK NAHASKETA GABE	30
BAZKA LABOREAK (lekadunak+gramineoak)	40
FRUTA ARBOLAK	100

**OHAR GARRANTZITSUAK**

1. Berariaz ezarritako ibilguetan, debekatuta dago, urteko edozein sasoiatan, ongarrria eta fitosanitarioak botatzea metro bateko zerrendan ibaiak neguan daukan uraren ibilguaren ertzarekiko. Halaber, metro bateko zerrenda hori ezingo da erein inola ere.

2. Nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan ez dagoen zonetan ezarri beharreko Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodearen laburpena da taula hori; hortaz, kode horretan zehaztutako gainerako gomendioak ere kontuan hartu behar dira (ekainaren 7ko 112/2011 Dekretua)

3. Laboreari aplikagarri zaion nitrogeno guztia da dosia; beraz, ongarrri organikoak (simaurra eta minda) eta kimikoak (hondoko ongarrria + nitratoa) hartu behar dira kontuan.

4. Baldin eta nekazaritza eta ingurumen laguntzak arautzen dituzten arauetan mugarik ezartzen bada gehienez erabili daitezkeen nitrogeno kopuruari buruz, arau horietan jarritako mugak aplikatuko dira

<b>ONGARRI ORGANIKOEN, SIMAURREN ETA MINDEN ONGARRI UNITATEEN KALKULUA</b>	
<b>ARRISKU ZONAK ETA ARRISKURIK EZ DAGOEN ZONAK</b>	
<b>ONGARRI ORGANIKO MOTA</b>	<b>NITROGENOZKO ONGARRI UNITATEAK, MINDEN METRO KUBO (m3) BAKOITZEKO</b>
<b>ESNETARAKO BEHIEN MINDA</b>	<b>4,1</b>
<b>HARAGITARAKO BEHIEN MINDA</b>	<b>2,8</b>
<b>TXERRIEN MINDA</b>	<b>3,6</b>
	<b>NITROGENOZKO ONGARRI UNITATEAK, SIMAUR TONA (t) BAKOITZEKO</b>
<b>ESNETARAKO BEHIEN SIMAURRA</b>	<b>5,6</b>
<b>HARAGITARAKO BEHIEN SIMAURRA</b>	<b>5,7</b>
<b>ARDIEN SIMAURRA</b>	<b>10,6</b>
<b>ARDIEN SIMAURRA</b>	<b>7</b>
<b>OILOEN SIMAURRA</b>	<b>19</b>
<b><u>OHAR GARRANTZITSUAK</u></b>	
<b>Ongarri organikoa zerez eginda dagoen adierazten duen analisi ofizialik ez badago baino ez da erabiliko erreferentziako taula hori.</b>	
<i>1. Hektareako bota daitezkeen ongarritze unitateen kalkulu osoa egiteko, ongarri organikoak eta kimikoak erabilia botatako ongarritze unitateen batuketa egin behar da</i>	
<i>2. Ongarri organikoak andel edo ongarrri-zabaltzeko atoiaren bidez botatzen direnean, ongarrri kimikoentzat dagoen araudia bete beharko da; baita ongarrri organikoentzat dagoena ere</i>	
<i>3. Mindak kanoiaren bidez botatzen direnean, 5etik 10 metrora bitarteko zerrenda utzi beharko da ongarritu gabe, eta kanoia ur ibilbidetik finkarantz bideratu beharko da. Arau hori ur ibilbide guztietan ezarri behar da.</i>	
<i>4. Ongarri eta mindak bota ondoren, komeni da, baldin eta bideragarria bada, lurra lantzea haiek lurrarekin nahasteko, hala gutxitu egiten baitira lurruntzearen ondoriozko galerak, usain txarrak saihesten dira eta laborerako nitrogenoa areagotu egiten da.</i>	
<i>5. Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodearen laburpena da taula hori, baina horrek ez du esan nahi Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodeak jasotzen dituen gainerakoak bete behar ez direnik (ekainaren 7ko 112/2011 Dekretua)</i>	
<i>6. Nekazaritza eta ingurumen laguntza lerroetatik zenbait eskatu ahal izateko beharrezkoa da ongarrri organikoaren analisisa izatea.</i>	